EUSKARA: IRAKURGAIA II - GPS-a

4. maila

1.2.2. Zer da GPS-a?

TESTUAREN DESKRIPZIOA	
Testuaren izenburua:	*Zer da GPS-a?*
Erabilera esparrua:	*AKADEMIKOA / DIBULGAZIOZKOA*
Testuaren generoa:	*AZALPENEZKOA*
Iturria:	*www.ibaizabal.com*

Hurrengo testua irakurri eta galderei erantzun.

ZER DEMONTRE OTE DA "GPS"A?

- Aparatu horren bidez munduan egon daitekeen edozein pertsonaren, autoren, itsasontziren eta abarren posizio zehatza jakin daiteke.
- Zehaztasun handia du.
- Autoetarako GPSak edota baso ibilbideak, itsas nabigazioa... egiteko GPSak daude.
- Modernoenek errepideetako mapa zehatzak dituzte edota hitz egiten dizute, zer bide hartu behar duzun esanez.
- Aparatu oso txikiak (ukabil bat bezalakoa) eta eramangarriak dira.
- 4-10 ordu irauten duen bateria izaten dute.
- 200-300 euro balio dute.

http://www.ibaizabal.com/txokogaztea

01 **Zergatik testuaren esaldiek daramate puntu beltz bat aurretik?**

A. Testu hauetan horrela egiten delako beti.

B. Informazioa era argitsu eta ordenatuan emateko.

C. Gauza oso desberdinak aipatzen direla markatzeko.

D. Puntu horiek ez dute funtziorik: testua apaintzeko balio dute soilik.

02

Testuaren arabera, zer da zehatz-mehatz GPS-a?

A. Pertsonak, soilik, non dauden seinalatzeko erabiltzen den aparatua.

B. Aparatu eramangarria mapa bat pantailan duena, zehaztasun handikoa.

C. Zein bide hartu behar den esateko balio duen aparatu eramangarri zehatza.

D. Edozein izaki nahiz objekturen kokalekua zehazteko eta ibilbidea markatzeko balio duen aparatua.

03

Testuaren arabera, nolakoa da GPS-a?

A. Oso-oso txikia.

B. Karratua eta luzea.

C. Esku itxi baten tamainakoa.

D. Eraman daiteken poltsa baten antzekoa.

04

GPS berri-berria erosi nahi dio Ainarak amari. Zergatik?

A. Zenbat eta modernoagoa orduan eta hobea delako.

B. Modernoak beti zaharrak baino zehatzagoak direlako.

C. Berri-berriek zer bide hartu behar den adierazten dutelako.

D. Modernoek zaharrek baino iraupen handiagoko bateria dutelako.

05

GPS-aren bateriak iraun dezake...

A. hamabi ordu.

B. sei ordu inguru.

C. lau ordutara ez da iristen.

D. hamar ordu baino gehiago.

06

Non ager daiteke testu hau?

A. Nobela batean.

B. Entziklopedia batean.

C. Egunkari batean: albistea da.

D. Aldizkari batean: informazio laburra da.

07

Zeintzuk dira testuaren ideia nagusiak?

A. Oso aparatu moderno eta txikia dela.

B. 200 eta 300 euro bitarteko prezioa duela eta oso zehatza dela.

C. Errepideetako mapa zehatzak dituela eta hitz egiten dizula, zer bide hartu behar duzun esanez.

D. Aparatua daramanaren posizioa zehaztasun handiz markatzen duela eta garraiotan bereziki erabiltzeko dela.